

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Miren Gaztañaga

DATA: 2019ko irailaren 11tik urriaren 5era

AZALPENA:

Nire helburua guztiok dugun sormenaren "muskulua" aktibatzea izan zen. Proposamen desberdinen bitartez norberaren barne unibertsoan igerian ibili eta norberaren intereseko gaiekin kontaktuan jarri ginen. Muskulu hau aktibatzeko hainbat ariketa erabili nituen probokazio moduan.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. Saioa

Sortu zure bizitzaren narrazioa 11 iruditan.

2. Saioa

Aurreko eguneko ariketaren jarraipena + irudimen ariketa idatzia.

3. Saioa

Aukeratu zuretzat oso berezia den zerbait eta esan agur.

4. Saioa

Sorkuntza bi aktore herramienta bezala dituzularik

5. Saioa

Bidaia

6. Saioa

Mugimendu kalitateak

7. Saioa

Pertsonaia

8. Saioa

Maidar Oleaga

1. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

A.BEROKETA

Saio guztietan egiten nuen beroketa taldeko kideekin.

Ariketa motak: Estiramenduak, abdominalak, ariketa kardio-baskularrak, elkarrekin kontaktuan jartzekoak eta taldea sortzekoak.

Helburuak argi zeuden:

1. Alde batetik norbera bere "buruarekin" alegia, gorputzarekin kontaktuan jartzea.
2. Taldekideen gorputzak nekatzea, beraien alde arrazionala desaktibatzen saiatu eta sortzerako orduan beste bide interesgarri eta propioagoak esploratzeko.
3. Beraien harremanak beste perspektiba batetik elikatzea. Honek gai eta binkulu desberdinak azaleratzen zituen.
4. Taldea egin. Sarea. Bestearengandik asko daukagu elikatzeko.

B. "SORTU ZURE BIZITZAREN NARRAZIOA 11 IRUDITAN"

Beraien bizitzaren narrazioa sortzeko 11 irudi ekartzeko eskatu nien. Edozein irudi izan zitekeen: familia argazkia, liburu baten azalaren fotokopia, janari baten etiketa, marrazki bat...

1. Narrazio lineala sortu zuten lehenengo, kronologikoa, irudi bat bestearen atzean jarriaz.
2. Irudi horien aurrean jarri eta aurrez aurre ikusten zutenaz idazten egon ziren, epaia ahalik eta gehien alde batera utziaz.
3. Ondoren Eusebio Calonge dramagilearen testu bat eman nien irakurtzeko. Hainbat hitz eta esaldi azpimarratu zituzten. Jarraian, testutik aukeratutako hitz eta esaldiekin, irudi horietako bakoitza izendatu zuten.
4. Irudien jarraipena, hitz eta esaldien jarraipena bihurtu zen era berean eta bertatik ere narrazio berri bat sortu zen. Esaldi luze edo testu bat. Hau irakurri eta perspektiba honetatik begiratu zuten beraien eraikitako hasierako narrazioa.
5. Perspektiba berri honek, eraikitako testu berri honek beste begirada bat eman zien beraien irudiekiko eta bertatik idatzi egin zuten.
6. Azkenik, 11 irudien fotokopiak hartu (hau ekartzeko ere eskatu bainien) eta kartulina zuri bat soportez bezala zutelarik narrazio aske bat sortzeko gonbitea egin nien. Margoak, goraizeak, kola, zela eta hainbat materiale zituzten beste leku batetik, irudiekin eta modu plastikoago batean narrazio hori sortzeko.

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

A.BEROKETA

B. "Aurreko egunekoarekin jarraitu genuen"

1. Aurreko eguneko mural edo narrazioak egiteaz bukatu zuten.
2. Egindakoaren inguruan idatzi zuten.
3. Etenaldi bat hartu eta taldean hitz egin genuen bizitakoaz, ariketak berak eman zizkigun altxor eta hausnarketetaz. Iraganaren erromantizismo nekagarriaz hitz egin genuen, baita era berean iraganean aurkitzen genuen indar eta babesaz. Sakralizatuta geniten irudiak erditik moztu eta margotzearen plazerraz hitz egin genuen, eta gauzak begiratzeko tarte bat hartzeak hausnarketetarako hazi interesgarriak sortzen dituela.
4. Inbentario bat egin genuen ondoren, bi lista osatu genituen. Lehenengoa: Zer aukeratu duzu zure narrazioan egotea? Bigarrena: Zer gelditu da zure narraziotik kanpo, ezkutuan? Eta kanpoan geratu den hori, nahita izan da edo instintiboki?
5. Alboratutako gauzen artean bat aukeratu.
6. Eta aukeratutako "gauza" hau presente izanik hainbat galdera egiten nizkien eta beraiek idazteari ekin zioten hurrengo galdera zetorrene arte. Idazketa automatikoa asko landu genuen, gehiegi pentsatu gabe idatzi, etenik gabe.
7. Galderak besteak beste:

Kolore bat balitz?

Hiri bat balitz, zein? Nolakoa da? Nola bizi naiz hiri horretan?

Arropa bat balitz, zein nola daramat, nola heldu da nire eskuetara, nolakoa da...

Janaria balitz...

Animalia...

Pertsona bat eszenan egongo balitz ekintza bat egiten ze ekintza izango litzake?

Gorputzeko zein parte?

Zure buruaren erretratua egin.

Harreman sexual batean zein momentu?

Abesti bat, soinu bat balitz...

Izen bat balitz zein?

Gizaki bat balitz nola izango zen bere erretratua. Gehitu zuk nahi diozuna marrazki horri

Atmosfera bat izango balitz?

Izaki bat izango balitz?

Margotu ezazu

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

A. BEROKETA

- B. "Aukeratu oso maitia duzun zerbait eta ekarri. Jakin desagertu arazi egingo duzula".

Taldeko kideek bazekiten ekarritakoa desagertarazi beharko zutela. Ariketa honako hau izan zen, desagertze hori performatibizatzea, erritual edo eszena bat (azken finean gauza bera da) sortzea. Hau aurrera eramateko hainbat erabaki hartu behar zituzten: bakarrik egin edo taldekideekin batera, espazioaren kokapena aukeratu, soinua, argia, noiz hasi eta noiz bukatu.

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

A. BEROKETA

- B. Sorkuntza bi aktore herramienta bezala dituzularik

Taldekideek beroketa eguneroko aretoko kanpokaldean egin zuten. Barrura sartu baino lehen koaderno eta arkatza prest edukitzeko eskatu nien. Atea zabaldu genuenean, areto barruan espazio mugatu bat eraikita zegoen, argitapen konkretu batekin, espazio eszeniko bat non barruan bi aktore zeuden posizio desberdinetan kokatuta.

Taldekideak harrituta sartu ziren aretora, bakoitzak leku bat aukeratu zuen eszenarekiko eta lanean hasi ginen. Taldekideek ondorengo galdera eta planteamentuen aurrean idatzi egin behar zuten.

1. Zer da hemen gertatu dena? (Eszena bat idatzi)
2. Antzezlan bat izango balitz aurrean duzuen zein izango litzateke sinopsia?

Ondoren sorkuntza ariketak egin ditugu aktoreekin elkarlanean:

1. Aktoreek inprobisazio libre bat egin dute. Kanpotik taldekideek mezuak utzi dizkiete espazio eszenikoaren mugetan. Aktoreek mezuak irakurri eta inprobisazioek aldaketak jasan dituzte. Bi mezu mota uzten zizkieten taldekideek: 1) aktoreek esateko idatziak izan diren mezuak eta 2) egoera edo ekintza desberdinen proposamenak.

2. Taldekideak taldeetan batu eta aktoreekin lanean jarraitu dute. Hasteko eszena desberdinak idatzi dituzte. Talde bakoitzak elarazi die eszenaren nondik norakoa aktoreei. Ondoren beste

taldeek aurreko lanetik interesgarria iruditu zitzaiena gorde eta bere ideia proposatu diete. Modu hontan eszenak berak transformazio bat jasan du, guztion begirada, hautu eta proposamenen hartu emanekin.

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- A. BEROKETA
- B. "Bidaia"

Gorputza abiapuntu bezala hartuta bikoteka jarri dira taldekideak. Erlajazio prozesu batetik hasi eta lurretik poliki-poliki altxatzen joan dira zutik geratu arte. Bikotetik batek begiak zabalik zeuzkan (hau izan da gidaria) eta besteak itsita. Gidariak bere kideari bidai luze bat eskeini dio 45 bat minutukoa. Aretotik abiatu eta kalera irten dira. Bidaiaren protagonistak sentsazio pila bizi izan ditu. Alde batetik berez zetozkionak eta bestetik bere gidariak eta nik eskeintzen genizkionak: janaria, edaria, testuak belarrira, abestiak, korri egin arazi, etab.

Bikoteko rolla aldatu egin dugu.

Ondoren idatzi egin dute guztiok bizitakoaren inguruan eta hausnarketa desberdinak partekatu ditugu.

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- A. BEROKETA
- B. "Mugimendu kalitateak"

Bost mugimendu kalitate desberdin landu ditugu:

1. Neutroa
2. Kurboa
3. Erorketa
4. Eztanda
5. Kolpea

Mugimendu bakoitzean sakondu dugu esplorazio ariketa desberdinak gauzatuaz. Bakarka zein taldeka. Gorputzean arreta guztia jarrita genuelarik tarteka, ezustean, taldekideak beraien orri zurieta idaztera apartatzen ziren eta berriz ere gorputz lanketara itzuli. Gorputzetik idazten saiatu gara, pertzepzioa edo fokoa beste leku batean kokatuta genuelarik. Etengabeko joan etorri horren esplorazioan murgildu gara.

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- A. BEROKETA
- B. "Pertsonaia"

Fikziorako bidaia egin dugu gaurkoan.

Bakoitzak etxetik pertsonaia baten eraikuntza landuta ekarri du. Pertsonaia honen arropa eta objektuak ekarri ditu. Hainbat ariketa egin ditugu:

1. Ekarrirako gauzeekin instalazio bat sortu du taldekide bakoitzak espazioan.
2. Guztien artean sortutako proposamen desberdinak behatzen aritu gara.
3. Nik stop esan eta bakoitza ezustean harrapatu duen instalazioaren aurrean kokatu da. Aurrez aurre zituen objektuei begira pertsonaia horri buruz idatzi bat egin du eta idatzia bertan utzi. Ariketa hau behin baino gehiagotan egin dugu. Etenaldi horietako batean, idazterako orduan, "idazleak" gutun bat idatzi dio pertsonaia horri.
4. Etenaldi horietako batean, ezustean, etxetik ekarri ez duten pertsonaia baten aurrean zeudelarik, transformazio ariketa bat egiteko eskatu diet. Pertsonaia hori gorpuzteko esperientzia bizi izan dute. Esku artean, arropa eta objektuez gain, besteek idatzitako testu eta gutuna ere bazuten. Guztia izan da eraikuntzaren parte. Pertsonaia bakoitzak gorputz eta ahotsarekin jokatzu bere narrazio desberdinak kontatu dizkigu. Ahozko sorkuntza izan da. Gorpuztua.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

MAIDER OLEAGAREKIN ELKARRIZKETA

Bere lanaz aritu gara, bere esperientziaz, bere begirada intimoaz. Emakumea eta zinegilea izatea nola bizi duen kontatu digu eta sorkuntza prozesuetan nondik nora murgiltzen den bera eta nola bizi dituen.

HAUSNARKETA OROKORRAK:

Testu bat edo beste edozein lan artistiko, edo ez artistiko, norberak izendatu dezala nahi bezala, eraikitzen hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zait norberak bere iruditegiarekin, bere gai, argi eta itzalekin duen kontaktua elikatzea, bertarako joan-etorriko bidea despejatzea, bertatik ezinbesteko bizipen eta sorkuntzarako lan-tresna interesgarriak arrantzatzen baititugu.

David Linch-ek atrapar el pez dorado, horrela izendatu zuen ariketa hau, titulu bera zuen bere liburu batean.

Taldekideek norberakotasunetik taldera egin dituzte joan etorriak. Nik ariketak planteatu ditut eta saioa beti amaitu dugu gure artean hainbat hausnarketa eta bizipen elkarbanatzen.

Sorpresa lan-tresna garrantzitsua izan da niretzat. Helburua: buruak, nahiz eta beti eragiten digun, ahalik eta askeen uztea, horregatik estrategietako bat izan da ezustean harrapatzea.

Begirada lantzea izan da beste helburuetako bat. Ehiztariaren antzera, irudiren bat, esaldiren bat, ideia bat etortzen bazait, esna egon eta harrapatu. Horretarako uneoro izan dugu alboan kuadernoa eta boligrafoa.

Leku ludiko batetik egiten saiatu naiz, epairik gabeko espazio bat sortzeko helburuarekin, nahiko epai badaukagu eta norberak gure buruarekiko. Jolasak irudimenaren eta sorkuntzaren atea zabaltzeko edo malgutu egiten ditu eta hor ibili gara lanean, gozatuz eta partekatuz. Plazer hutsa izan da.